

GAKO EKONOMIKOAK

- Tonu ona erakusten du munduko ekonomiak.
- Emaizta mistoa burtsetan: saldo positiboak AEBn eta Japonian, beherakada Europan eta emergente gehienetan.
- Aldaketa handirik ez zorraren tasetan. Hobekuntza Europako periferikoetan.
- Euroak zuzendu egin du aurreko hileko ahultasuna eta berriro ere 1,20\$/eur ingurura iritsi da.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Azaroa ere ekonomia globala bizitzen ari den momentu onaren erakusgarri izan da. AEB 3. hiruilekoak aurreikusita zegoena baino gehiago hazi da (urtean %3,3ko erritmoan) eta jarduera- eta konfiantza-adierazleek maila garaian jarraitu dute. Datu horiekin, merkatuak deskontatu du ia segurtasun osoz FEDek tasa ofizialak igoko dituela abenduan. Erakunde hori interes-tasak maila normalizatuagoetara eramateko egiten ari den ahaleginean, jakin dugu Jerome Powell izango dela Janet Yellen-en ondorengoa Erreserba Federalaren lehendakartzan. Powell-en profil kontinuitate kontuan izanda, espero izatekoa da politika monetarioa pixkanaka gogortuz joango dela, datuen eboluzioari lotuta, batez ere inflazioa kontuan hartuta, oraindik ere ez baitu erakusten igoera irmoaren zantzurik. Hala ere, litekeena da erritmoa bizkortzea, hainbeste aldiz iragarritako erreforma fiskala onartzearekin. Atlantikoaren beste aldean, datu makroekonomikoez sendotasuna erakusten jarraitzen dute. 2017ko 3. hiruilekoan BPG espektatibean gaintik igo da (%2,5 aurreko urtearen gainean), langabezia-tasa azken 9 urteetako minimoan geratu da eta konfiantza ekonomikoa 2000tik honako maximoetan. Esparru politikoan, Kataluniako tentsioa baretuz joan da eta Alemaniak hartu du protagonismoa, koalizio-gobernua eratzeke Merkelen, liberalen eta berdeen arteko negoziazioak bertan behera geratu direnean. Horrekin, beste hauteskunde batzuk egiteko posibilitatea ireki da, sozialistekin berriro ere koalizio handia osatu ezean. Munduaren gainerako zatian, Japoniak hazkundea izan du zazpigarren hiruilekoaren errenkadan, eta herrialde emergenteek ere hobekuntza erakusten segitu dute funtsezkoetan, Txinako erreferentziek nolabaiteko frena iradoki badute ere, gobernuak ustelkeriari kontra egiteko eta merkatu inmobiliarioa hozteko hartutako neurrien haritik.

ERRENTA ALDAKORRA

Emaizta mistoekin itxi dute hila burtsek, hilabete osoan Trumpen plan fiskala senatuan onartzeko zain. Ameriketako indizeek %3 inguruko igoerekin amaitu dute hila, erreforma fiskala egia bilakatzeko posibilitateak bultzatuta. Gainera, FEDen lehendakari berri izango denak, Powell-ek, deklaratu du banku-erregulazioa murriztearen aldekoa dela, eta horrek eragin positiboa izan du sektorean. Aitzitik, Europan, %1,5 eta %3 bitarteko beherakadarekin amaitu dute hila burtsek, Alemaniak koalizio-gobernua eratzeke negoziazioak bat-batean eten ostean, eta Brexitaren negoziazioetan akordio baterantz aurrera egiteko May-ren lidergo kolokan ikusita. Zifra horiek negatiboak izanik ere, albisterik onena Europako enpresen irabaziek epealdian utzi duten balantzea izan da, 3.HHn %10 hazita, 2.HHko antzera, hiruileko honetan euroa sendoago ibili den arren. Gainerako indizeetan ere, emaitza desberdinak ikusten dira. Japonian %3tik gorako igoera izan du burtsak, eta, aldiz, emergente gehienetan beherakada izan da, Brent petrolio-prezioa %3 igo arren LPEEK produkzio-murrizketak luzatzeko akordioa lortu ondoren.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2017ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	10.211	EUR	%-2,97	%9,18
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.569,93	EUR	%-2,83	%8,49
S&P-500	AEB	2.647,58	USD	%2,81	%18,26
DOW JONES	AEB	24.272,35	USD	%3,83	%22,82
NASDAQ 100	AEB	6.365,56	USD	%1,87	%30,88
NIKKEI-225	JAPONIA	22.724,96	JPY	%3,24	%18,89
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.120,79	USD	%0,15	%29,98
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.077,36	EUR	%1,99	%18,62

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Zorraren tasetan aldaketa handirik gabe amaitu da azaroa. Europan, Alemaniako 10 urterako bonuak hilabete-hasierako maila bertsuan bukatu du, %0,37 inguruan, EBZk 2018rako zalantzak argitu ondoren. Periferikoetako zorrak, bestalde, Alemaniarekiko diferentzia estutu du, herrialde horietako arrisku politiko txikiagoari eta ekonomien sendotasunari esker. Ameriketako bonuek, berriz, igoera handia izan dute tasen kurbako epe laburreko zatian, erreforma fiskala hurbil egotea kotizazioan sartuta. Aldi berean, igoerak oso moderatuak izan dira 10 urterako epean, 3 oinarriko puntukoak ozta-ozta.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2017ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,33	0,00	-0,01
	6 HIL.	-0,27	0,00	-0,05
	12 HIL.	-0,19	0,00	-0,08
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,68	0,07	0,08
	5 URTE	-0,31	0,04	0,22
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	10 URTE	0,37	0,00	0,16
	2 URTE	-0,33	0,00	-0,06
	5 URTE	0,35	0,14	0,08
	10 URTE	1,45	-0,02	0,06

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Euroa asko indartu da dolararekiko, egunez egun kotizatuz Ameriketako plan fiskalak aurrera ez egiteko aukera, eta, halaber, euroguneko ekonomiaren eboluzioari buruzko datu pozgarriek bultzatuta. Gainerako dibisekiko ere balioa irabazi du, batez ere yenarekiko.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg